

Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guztiak ikusi liburu honetan ►►
Turismo bulegoetan eskuragarri



Maila
1

BIZIKI ERREXA

BORDAGAIN - UNTXIN



ZIBURU

Zokoako Gotorlekua

Ibilbide honek ingurumen oihantsuak eta uretako eremu anitzak zeharkatzea ahalbidetuko dizuete baita arkitektura eta ohiko ondare arraroa deskubritzea ere.

D Zokoako hondartzaren parean, Bordagain mendixkaren mazelatara doan Abadia Urrustoi hiribidea hartu. Gailurrera heldu aitzin, eskuinera hartu, egurrezko hesia gainditu

① 0606744-4804354 Elorriko bidea ize-neko bidexka hartzeko. Bidexka oihan batean sartzen da eta pentze batera eramaten du. Honen gainera itzulia eginez itsasoaren eta Zokoako gotorlekua-ren ezohiko ikuspegi baten parean izanen zarete ② 0606518-4804303.

Oihanerantz segitu jabetza-mugaren bazterretik eta oihanartearen intimitatean ibili RD913 errepideraino.

Eskuinera hartu. Bide bazterretik ibili Itsas Lizeoraino ③ 0606056-4804088.

Eskuinera hartu Eugène Corre etorbidean eta segidan ezkerrean, lizeoaren ondotik. Eskailera-mailak hartu Untxingo bazterretara heltzeko.

Eskuinera itzuli Pierre Larretche paseabidea hartzeko ④ 0606147-4804356.

Eremu heze honetan diren abereak eta landereak begiratzeko aukera izanen duzue. Segitu xuxen hondartzara berriz

0:50 heltzeko.



Untxin, itsasbeheran



Pierre Larretche paseabidea

Maila
1

BIZIKI ERREXA

BORDAGAIN - UNTXIN



D (abialekua) Abadia Urrustoi hiribidea Zokoako hondartza

GPS : 0606540-4804938

0:50

2,7 km

+76 m
 -76 m

Balizamendua

D-tik **4**-era

Ez hutsegin

- Ikuspegi ederrak
- Bordagaineko Dorrea
- Zokoako Gotorlekua
- Errekoletoen Kalostra
- Ohiko eraikuntza

Mendiko zapatak ezinbestekoak dira, batez ere oihareneko partearentzat

ZIBURU

Lehen, Ziburu, Urruñako auzo bat besterik ez zen (Zubiburu). Populazioa handituz, ziburutarrek beren «independentzia» eskatu zuten. Henri III.ak hitzeman zien 1574ean, baina Henri IV.ak zion Zibururi onartu autonomia 1603ko azaroaren 7an, Tristan d'Urtubie Urruñako jauna eta Catherine de Montaigne-en senarra zenak horren kontra maniabrak bideratu bazituen ere.

Zibururen sorrerak eragin zituen lurralde eta pribilegio auzi desberdinak trenkatzeko, Henri IV.ak Etienne de Tenon izendatu zuen. Afera 1634ean baizik ez zen konpondua izan. Zubiburu, "Subiboure" bilakatu zen hastapen batean eta ondotik "Ciboure" 1700. urte inguruan.

Ziburu eta Urruñaren arteko lur banaketak ez ziren egungo be-

zalakoak.

Untxin bi herrien arteko muga zen Kalea zubiraino. Zokoa auzoa Untxingo ezkerrean, oraindik Urruñakoa zen. Napoleon I.aren garaian trukatu izan zen «mendiarekin» (Ziburuk honen gozamina atxiki du).

Ziburuko historia Inperioari eta itsasoari hertsiki lotua da. Itsasoaren kontrako geriza naturalak ahultzen dituen itsas-labarren higadurarengatik, babes-digak eraiki behar izan ziren. Luis XVI.aren garaian, lehen entsegu bat suntsitua izan zen Frantses Iraultza denboran. Napoleon I.ak Ziburu eta Donibane Lohizune suntsitzea pentsatu zuen, gainetan berriz eraikitzeko. Napoleon III.ak, bere aldetik, gaur egungo 3 dikeak eraikitzea erabaki zuen, itsasoaren aitzinatzea 200 urtez 200 metroz oztopatuz.

Xehetasun gehiago:

Ziburuko Turismo Bulegoa

27, quai Maurice Ravel - 64500 Ciboure - Tel : 05 59 47 64 56

officedetourisme.ciboure@wanadoo.fr – www.ciboure.fr

TERRE & CÔTE BASQUES
PAYS DE SAINT-JEAN-DE-LUZ - HENDAYE
www.terrecotebasques.com

www.rando64.fr

Oinez, mendiko bizikletaz edo zaldiz, Biarhoa eta Ipar Euskal Herria ezagutu !

Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera guztien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

Oinezko ibilaldiak mailaren araberako sailkatuak dira eta ibilbide bakoitzaren fitxa praktikoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

Biziki errea 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

Errexa 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

Ertaina 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zail batzuk eta desnibela handia izaten ahal dira.

Zaila 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

Ibilaldiaren iraupena: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

Ibilaldien labelak

PR® labelizaturiko ibilbideak: Label horrekin, FF Randonnée-k oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, www.ffrandonnee.fr)

Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da:

WGS 84 - UTM 30T

Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pautatu dituen sormarkak dira

Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecovaille®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharra jakinarazteko Hego Lapurdiko Hirigunea deitzera gomitatzen zaitugu: 05 59 48 30 85.

Edo « Ecovaille » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean: www.rando64.fr

Aholku baliagarriak

Eguraldia 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal Herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziarazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !